

Sanjoanak, «Intxaurrondoko euskal giroari eusteko»

Egun bakarreko egitarauarekin, baina ederki ospatzen dituzte San Joan jaiak Ipar Intxaurrondon, Bernart Etxepare plaza jai gune gisa hartuta. Urteroko legez, San Joan bezperan bertan ospatuko dituzte jaiak, hilaren 23an.

Arratsaldean hasiko da jai giroa eta afaldu ostean piztuko dute sua. Hain zuzen ere, sua eta haren inguruko dantzaldia izaten da jende gehien elkartzen duen jarduera, jai batzordeko kide Leire Gallastegiren hitzetan: «Auzoko dantzariak asteak pasatzen dituzte euskal dantzak prestatzen eta auzotar dezentente etortzen dira ikustera».

Horrela, jaietako kartela da aurtengo berritasuna, Gallastegiren arabera: «Lauaizeta ikastetxe-ko DBHko laugarren mailako artean kartel lehiaketa egin dugu, beraz, beraiena da aurtengo kartela».

Intxaurrondotarrak jaietan parte hartzera deitu ditu Gallastegik, baita antolaketan ere: «Boluntario kuadrilla zabal bat behar izaten dugu eta lanak merezi du, beraz, ea hurrengo urtean gehiago garen antolaketan!». ●



ASTEARTEA 23

17:00

Txalaparta eta adarra.

17:05

Traka.

17:10

Txalaparta tailerra eta margotzea.

17:30

Txokolate jana.

18:15

Antzerkia.

19:00

Trikitaliak.

19:10

Zezentxoak eta buruhandiak.

Kalejira trikitilariekin.

19:20

Jolasak eta margotzea.

20:00

Afaria, norik berea. Sagardoa, ardoa eta ura erosteko aukera egongo da.

20:05

Intxaurtze taldea.

20:30

Estangatarren berbena.

22:00

San Joan sua eta plaza dantzak inguruan.

22:30

Estangatarrak.

23:00

Zezensuzkoa.

Ondo pasa jaietan!

Gabriel Aresti, 165, 20015 Donostia – 943-89 95 16 – 012958aa@hezkuntza.net